



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

BARNE EBALUAZIORAKO PROTOKOLOA 2024

UPV/EHU

KALITATE ETA EBALUAZIO INSTITUZIONALERAKO ZERBITZUA

(KEIZ)

2024ko OTSAILA

AURKIBIDEA

| | | |
|------|---|----|
| 1. | Sarrera | 2 |
| 2. | Barne ebaluazioaren helburua eta onurak | 3 |
| 3. | Barne ebaluazioa | 4 |
| 3.1. | Erreferentzia eredia | 4 |
| 3.2. | Ikastegiak bete beharreko baldintzak..... | 5 |
| 3.3. | Barne ebaluazioaren garapena | 5 |
| 4. | Ikastegientzako orientabide orokorrak..... | 7 |
| 4.1. | Dokumentazioa prestatzea | 7 |
| 4.2. | ESG autoebaluazioa | 7 |
| 5. | Ebaluazio Taldearentzako orientabideak..... | 8 |
| 5.1. | Plangintza eta Portaera Kodea | 8 |
| 5.2. | Ebaluazio Taldea antolatzea | 9 |
| 5.3. | Idazkari teknikoa – Ebaluazio Taldea hasierako bilera | 9 |
| 5.4. | Dokumentazioa aldez aurretik berrikustea | 9 |
| 5.5. | Bilera, gaia bateratzeko eta bisita prestatzeko. | 10 |
| 5.6. | Bisita..... | 11 |
| 5.7. | Barne Ebaluazioaren Amaierako Txostena eta hura idazteko irizpideak | 11 |
| 6. | Barne Ebaluazioan inplikaturako pertsonen pertzepzioa | 14 |
| | ERANSKINAK | 15 |
| | I. eranskina. ESG irizpideak | 16 |
| | II. eranskina. ESG autoebaluazioa | 18 |
| | III. eranskina A. Banakako ondorioak | 18 |
| | III. eranskina B. Ebaluazio taldearen ondorioak..... | 20 |
| | IV. eranskina. Bisitako agenda proposamena | 21 |
| | V. eranskina. Barne ebaluazioaren amaierako txostena..... | 22 |
| | ERREFERENTZIAK | 23 |

1. Sarrera

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak beti egin du etengabeko hobekuntzaren alde, maila guztietan. Unibertsitate ikastegietan, konpromiso hori gauzatu da Kalitatearen Barne Bermerako Sistemaren (KBBS) bidez, eta sistema hori sortu eta ezarri da ziurtatzeko programa akademikoen eta eskainitako zerbitzuen kalitatea. KBBS sistema oinarritzen da hobetzeko aukerak identifikatzen dituen prozesu eta prozedura sail batean, eta unibertsitateko kide guztiak inplikatzeko, helburua izanik bermatzea kalitatezko prestakuntza, etengabeko hobekuntza eta sistemaren etengabeko berrikuspena.

Gaur egun, UPV/EHUren ikastegiak daude beren KBBSak sendotzeko prozesu betean, kontuan izanik ere Ministerioak eta Kalitate Agentziek ezarritako eskakizunak.

Hori horrela, 2016az geroztik, Kalitate eta Ebaluazio Instituzionalerako Zerbitzuak (KEIZ) abian du "UPV/EHUren Barne Ebaluazioa" proiektua. Barne Ebaluazioaren helburua da ikastegiei laguntzea gogoeta egiten nola ari diren egiten gauzak, zer emaitza lortu dituzten eta nola lehenetsiko dituzten hobetzeko beren ildoak. Ikastegi bakoitzean aztertuko da nola ari diren aplikatzen KBBSren prozedurak eta zer emaitza lortu dituzten, eta unibertsitate ikastegiek erakutsi beharko dute beren KBBSren eraginkortasuna jarraipen eta analisi lanak egiteko eta erabakiak hartzeko honako arlo hauetan:

- ikastegiaren helburuak, eta prestakuntza programak diseinatu eta inplementatzeko haren estrategia.
- eskaintzen diren prestakuntza programen garapena.
- emaitzak eta etengabeko hobekuntza ziurtatzea.

Dokumentu honek (*"Barne ebaluaziorako protokoloa, 2024. UPV/EHU"*) proiektu horren berri ematen du. Sarrera labur honen ondoren, *Barne ebaluazioaren helburuak eta onurak* izeneko atala dator, eta hor azaltzen dira prozesu honen oinarritzko asmoa eta berezitasunak. Hurrengo atalean (*3. Barne ebaluazioa*), xeheki azaltzen dira ebaluazio hau osatzen duten elementuak.

4. eta 5. ataletan jaso dira inplikaturako agenteentzako *Orientabideak*: alde batetik, UPV/EHUko ikastegientzat; bestetik, *Ebaluazio Talde* bakoitza osatzen duten eta unibertsitate honetan (lan akademikoan, zerbitzuetan...) diharduten pertsonentzat.

6. atalak (*Barne ebaluazioan inplikaturako pertsonen pertzepzioa*) aipatzen ditu UPV/EHUren ebaluazio proiektu honetan inplikaturako pertsonen iritzia jasotzeko erabiltzen diren tresnak.

Azkenik, protokoloa amaitzeko, eranskin gisa gehitu dira UPV/EHU barne ebaluazioa osatzen duten mugarrietan erabili behar diren dokumentu guztiak.

2. Barne ebaluazioaren helburua eta onurak

KEIZrentzat, barne ebaluazioa da gogoeta prozesu eraikitzaile bat, UPV/EHUko hainbat eragilek burutzen dutena eta oinarritzen dena ikastegi baten Kalitatea Bermatzeko Barne Sistemaren (KBBS) eraginkortasun mailari buruzko trukean eta elkarrizketan. Ebaluazioa egiten da aintzat harturik “Europako Unibertsitate Eremuan kalitatea bermatzeko irizpideak eta jarraibideak” (ESG).

Barne ebaluazioa da sistema doitzeko prozesu bat, bi faseren artean burutzen dena: KBBSren autoebaluazio fasearen (ikastegiak sistematikoki eta aldian behin egiten duena) eta kanpoko ebaluazio fasearen (UNIBASQek egiten duena, KBBSren eraginkortasuna bermatzeko) artean.

Edonola ere, barne ebaluazioa egiteak hainbat onura dakartzkio ebaluatutako ikastegiari, Ebaluazio Taldea osatzen duten pertsoneri eta unibertsitateari berari ere. Horien artean nabarmentzekoak dira:

- Ikastegiari baliagarria zaio gogoeta egiteko ongi egiten duen kudeaketa lanari buruz eta hobe ditzakeen gaiei buruz. Gainera, dokumentazioa antolatzen laguntzen dio. Era berean, esperientziak “saialdi” gisa balio du kanpoko ebaluazioaren bisitarako. Bestetik, ikastegiak informazioa eta ideiak jasotzen ditu unibertsitateko beste ikastegi batzuetan prozedura berak edo antzekoak kudeatzeko duten moduari buruz, eta horrek hobekuntzak identifikatzeko aukerak areagotzen ditu.
- Ebaluazio taldea osatzen duten pertsoneri laguntzen die praktikan jartzen ebaluatzaile gisa dituzten trebetasunak, eta bestelako kudeaketa moduak ezagutzen dituzte. Beraz, lagungarria da *benchmarking*-a eta berrikuntza garatzeko.
- Unibertsitateari aukera ematen dio ezagutza trukatzeko, erakundean diharduten pertsonen artean. Hortaz, lagungarria da barne ezagutzaren kudeaketarako. Horrez gain, jardunbide egokiak partekatzeko modu informal bat da, ikastegiak kudeatzen dituzten pertsonen artean.

3. Barne ebaluazioa

3.1. Erreferentzia eredua

ANECAREN AUDIT programa izan zen bere garaian UPV/EHUko ikastegien KBBSak diseinatzeko erabili zen erreferentzia eredua. Urteak igaro ahala, eredua funtsean ez da aldatu, eta areagotu egin da UPV/EHUko ikastegi guztien esperientzia kudeaketa arloan. Beraz, ESGak¹ (AUDIT programaren oinarrian daudenak) izango dira aurrerantzean erreferentzia eredua.

Bestetik, kontuan izan behar dugu Unibertsitateen Idazkaritza Nagusiaren 2022ko martxoaren 3ko erabakia, zeinaren bidez ematen diren unibertsitate publiko eta pribatuetako ikastegiak akreditatzeko prozedurari buruzko jarraibideak, eta argitaratzen diren bai unibertsitate ikastegietako kalitatea bermatzeko barne sistemak ziurtatzeko protokoloa bai unibertsitate ikastegien akreditazio instituzionala berritzeko ebaluazio prozeduraren protokoloa, bi-biak Unibertsitate Politikako Konferentzia Nagusiak onartuak².

UPV/EHUn barne ebaluazioa egiteko, gogoeta egiten da ESG irizpideei buruz, erakunde barnean kalitatea ziurtatzeko irizpideak, multzokatuak UNIBASQek 2012ko azaroaren 11n onartutako "Unibertsitate Ikastegien Akreditazio Instituzionala berritzeko estandarren eta irizpideen Gida"-ren arabera. UNIBASQen gidaren³ xedea da estandar eta irizpide batzuk finkatzea Euskal Unibertsitate Sistemako ikastegien Akreditazio Instituzionala berritzeko. Hona hemen agentziak finkatutako 8 irizpideak:

- **1. IRIZPIDEA:** KALITATE ESTRATEGIA ETA POLITIKA DEFINITZEA
- **2. IRIZPIDEA:** IKASTEGIAREN PROIEKTU AKADEMIKOAREN DISEINUAREN KUDEAKETA
- **3. IRIZPIDEA:** IKASTEGIAREN PROIEKTU AKADEMIKOA HEDATZEA ETA EZARTZEA, IKASLEA ARDATZ IZANIK
- **4. IRIZPIDEA:** UNIBERTSITATE IKASTEGIKO LANGILEEN BERMEA ETA HOBEKUNTZA.
- **5. IRIZPIDEA:** BALIABIDE MATERIALEN ETA ZERBITZUEN BERMEA ETA HOBEKUNTZA
- **6. IRIZPIDEA:** EMAITZEN ANALISIA
- **7. IRIZPIDEA:** IKASTEGIAREN JARDUEREN ETA PROIEKTU AKADEMIKOAREN JARRAIPENA
- **8. IRIZPIDEA:** IKASTEGIAREN JARDUEREI ETA PROIEKTU AKADEMIKOARI BURUZKO INFORMAZIOA ARGITARATZEA

Irizpide horietako bakoitzaren edukia ikus daiteke **Error! Reference source not found.** eranskinean. Gida modura balioko dio ebaluazio taldeari, dokumentazioa aztertzeko.

¹ https://www.enga.eu/wp-content/uploads/filebase/esg/ESG%20in%20Spanish_by%20ANECA.pdf

² <https://www.boe.es/buscar/pdf/2022/BOE-A-2022-3710-consolidado.pdf>

³ <https://www.unibasq.eus/wp-content/uploads/2023/03/Guia-AI-nov-2022.pdf>

3.2. Ikastegiak bete beharreko baldintzak

Barne ebaluaziora aurkezteko, ikastegiak eguneratuta eduki behar du KBBSa (prozedurak, erregistroak, adierazleen emaitzak, berrikuspenak, txostenak...). Ikastegiak (KBBSren arduradunek) gogoeta egin behar izan du bere kudeaketa lanari buruz, indarguneak eta hobetzeko arloak identifikatuz barne ebaluazioaren xede den irizpide bakoitzean.

Zehazki, ikastegiek honako hauek aurkeztu behar dituzte:

- KBBS berrikusi eta eguneratua (KBBSren eskuliburua prozedurekin).
- Adierazleen taula, emaitzekin.
- KBBSren erregistro guztiak, azken kanpo ziurtapenetik.
- Autoebaluazioa: besteak beste, kudeaketaren mugarren testuinguratzea (azken ziurtapenetik) eta 2-5 indarguneren eta 2-5 hobetzeko arloren identifikazioa barne ebaluazioaren irizpide bakoitzean (ESG autoebaluazioa).

3.3. Barne ebaluazioaren garapena

KEIZ zerbitzua arduratzen da ebaluazio taldea hautatzeaz. Edonola ere, taldea osatzen dute KEIZko zuzendariak edo teknikariek eta gutxienez UPV/EHUko ikastegi bateko ordezkari batek (TEKAZEL edo IRI). Pertsona horiek KEIZren prestakuntza ikastaroa egin behar dute.

Gainera, KEIZko pertsona batek egiten ditu idazkari teknikoaren lanak, eta arduratzen da ebaluazio taldearen antolakuntzaz eta kudeaketaz, bai eta barne ebaluazioaren bisitaz ere. Idazkari teknikoaren zeregina da ebaluatutako ikastegiari laguntza eskaintzea eta aholkuak ematea. Era berean, idazkari teknikoak lehen bilera bat egiten du ebaluazio taldearekin, orientabide bat eskaintzeko hari, egin beharreko ebaluazioaren inguruan.

Barne ebaluaziorako, KEIZk tresna informatiko bat sortu du, hemendik aurrera BARNE⁴, barne ebaluazioko prozesu osoa burutzeko (ikastegiaren dokumentaziora sartzea, autoebaluazio dokumentua, banakako ebaluazioa, ondorioen dokumentua, amaierako txostena, galdetegiak...). Idazkari teknikoak alta eman behar die BARNEn bai ebaluatutako ikastegiaren ordezkariari bai ebaluazio taldeko kideei.

Bisitaren data adosten dute ebaluatutako ikastegiak eta ebaluazio taldeak. Ikastegiak ebaluaziorako behar den dokumentazio guztia helarazten dio ebaluazio taldeari **bisita baino 6 aste lehenago**.

Ebaluazio taldeak erabakitzen du zer interes talde elkarrizketatu. Nolanahi ere, honako hauek izango dira: kalitateaz arduratzen den dekanordea/zuzendariordea, kalitateaz arduratzen den ikastegiko teknikaria edo TEKAZEL langilea, ikastegiko zuzendaritza osatzen duten 2/3 pertsona eta Kalitate Batzordeko 2/3 kide.

Bisitak 5 ordu irauten du eta goizez egiten da (presentziala da).

⁴ <https://app.ehu.eus/BarnekoEbaluazioa/principal>

Bisitan, ebaluazio taldeak ikastegiko arduradunekin argitzen ditu dokumentazioaren analisisian sortutako zalantzak. Era berean, azalpenak ematen dira irizpide bakoitzari dagozkion kudeaketa praktikei eta detektatutako indarguneei eta hobetzeko arloei buruz.

Bisitan izandako elkarrizketaren emaitza gisa, ebaluazio taldeak barne ebaluazioaren Amaierako Txostena idazten du. Txostenak jasotzen ditu ebaluazioan parte hartu duten pertsonak aurkitu dituzten indarguneak eta hobetzeko arloak.

Barne ebaluazioa egin ondoren, ikastegiak egokitzat jotzen dituen neurriak hartzen ditu detektatu diren gabeziak hobetzeko, eta ikastegiaren KBBSan integratzen ditu (UNIKUDE). Gainera, ikastegiko arduradunek barne ebaluazioaren Amaierako Txostena sartzen dute beren KBBSan, erregistro modura.

4. Ikastegientzako orientabide orokorrak

4.1. Dokumentazioa prestatzea

Aurreko ataletan azaldu den moduan, barne ebaluazioan ikuspegi eraikitzaile batetik aztertzen dira KBBSa eta haren inplementazio eraginkorra, aintzat harturik erreferentzia eredu (ESG irizpideak). Hori dela eta, ikastegiak ebaluazio taldearen esku jarri behar du, BARNE informatika tresnaren bidez, balorazio hori egiteko behar den dokumentazio guztia.

Ikastegiak eskatzen zaion dokumentazioa entregatuko du, **bisita baino 6 aste lehenago**. KEIZk proposa dezake unibertsitateko kideek erabili ohi duten tresnaren bat erabiltzea; hala nola EgelaPI edo Gordetalde.

Beren KBBSa barne ebaluaziora aurkeztu nahi duten ikastegiek bete egin behar dituzte aurretik aipatutako baldintzak (3.2 atala). Hala, ebaluazio taldeak eskura izan behar ditu bai ebaluatu beharreko ikastegiaren KBBSa bai azken kanpo ziurtapenetik ikastegiak bere prozedurak kudeatzeko adierazgarrientzat jo dituen erregistro guztiak.

Garrantzitsua da KBBSren arduradunek gogoeta egitea sistema horren definizioari eta ezarpenari buruz, kontuan izanik interes talde garrantzitsuenak. Aldian behingo analisi eta berrikuspenaren emaitza gisa, ikastegiak eguneratuta izango du bere KBBSa, dagozkion aldaketa guztiak sartuta eta ikastegiaren helburu guztiak betetzea erraztuko duten elementu guztiak egokituta.

KBBSa eguneratzea etenik gabeko lana da, urtero egiten dena. KBBS bat egokituztat eta eguneratuztat hartzen da ikastegiaren kudeaketarako garrantzitsuak diren alderdi guztiak jaso dituenen: hala nola titulu edo ibilbide dualak, nazioartekotzearen ziurtapena, unibertsitate arteko tituluen kudeaketa, gradu bikoitzak, etab.

4.2. ESG autoebaluazioa

KBBSa da barne ebaluazioaren oinarria. Sistema horren bidez kudeatzen da egunez egun ikastegia eta eguneroko kudeaketa horretan sortzen den dokumentazio guztia biltzen du.

Barne ebaluazioari begira, ikastegiak barne gogoeta bat egin behar du, bere kudeaketaren autoebaluazioa, eta autoebaluazio horrek jaso behar du, alde batetik, ikastegiaren kudeaketaren analisi orokor bat, beren testuinguruan kokatuko dituen ikastegiak azken kanpo ziurtagiria lortu zuenetik KBBSan egin diren aldaketa garrantzitsuenak. Ez du izan behar KBBS prozeduretan egin diren aldaketen zerrenda zehatza, azken kanpo ziurtapenetik aldatu diren funtsezko jarduerena baizik.

Bestetik, testuinguratze horretatik harago, irizpide bakoitzean aipatu behar dira 2/5 indargune eta 2/5 hobetzeko arlo (ESG autoebaluazioa).

Barne gogoeta honen oinarritzko baldintza bat da ikastegiaren kudeaketa zereginetan inplikaturako pertsona guztiak parte hartzea.

5. Ebaluazio Taldearentzako orientabideak

5.1. Plangintza eta Portaera Kodea

Taulan ikus daiteke ebaluazio taldeko kide bakoitzak barne ebaluazioan emandako gutxi gorabeherako denbora.

| Zeregina | Denbora |
|--|---------------------------|
| Idazkari teknikoa – Ebaluazio Taldea hasierako bilera | 2 ordu presentzial |
| Dokumentazioaren banakako analisia | 20 ordu ez-presentzial |
| Gaia taldean bateratzea eta bisita prestatzea | 4 ordu presentzial |
| Ebaluazio bisita | 5 ordu presentzial |
| Barne ebaluazioaren txostena idaztea (ondorengo bilera batean) | 3 ordu presentzial/online |

Barne ebaluazioetan parte hartzen duten ebaluatzaileek bete egin behar dute nahitaez **Portaera Kode** bat:

- Ebaluazio taldeko kide guztien parte hartzea bultzatzea, errespetua oinarri hartuta.
- Objektibotasunez, inpartzialtasunez, independentziaz eta zuhurtziaz aritzea.
- Adeitsua, diplomatikoa, pazientea eta analitikoa izatea.
- Proporzionaltasunez jokatzeko, argitu nahi den zalantzaren eta eskatzen den ebidentziaren artean.
Adibidez: antolakuntza baten bileren sistemaren ebidentzia lortzeko, gehiegizkoa litzateke eskatzea azken 3 urteetako bileren akta guztiak.
- Elkarrizketatutako pertsonen egoera pertsonalera egokitzea: erabili hizkuntza ulergarri bat; urduri jartzen bada, konfiantza eman eta lasaitu; etab.
- Ebaluazio taldeari azaldu edo erakusten zaion ezer ez onartzea edo gaitzestea. Ikastegi baten kudeaketa jarduera eta beste batena ez dira zertan berdinak izan; berdina ez izateak ez du esan nahi “txarra”» denik.
- Oparirik ez onartzea.

5.2. Ebaluazio Taldea antolatzea

Ebaluazio taldeko kideak hautatzen dira KEIZko ebaluatzaileen artean, eta ebaluatzailea ez da inola ere izango barne ebaluazioa egingo zaion ikastegikoa.

Ebaluazio taldeak kontuan izan behar ditu **taldearen barruko rolak**, bai eta ebaluazio prozesuan erabili beharreko dinamika ere. Ebaluazio talde bakoitzean, KEIZk hautatzen du talde barruan **finkatze** lana egingo duen pertsona.

Behin ebaluazio taldea sortuta, idazkari tekniko lanak egingo dituen KEIZko pertsonak informazio mezu bana bidaltzen die ebaluatzaileei, barne ebaluazioaren antolakuntza zehazteko.

Mezu hori lehen urrats moduko bat da ebaluazio taldearentzat, eta taldearen bileren dinamika finkatzen du. Edozein zalantza sortuz gero antolakuntzaren, dokumentazioaren edo ebaluazioaren beraren inguruan, idazkari teknikoari helarazten zaio.

5.3. Idazkari teknikoa – Ebaluazio Taldea hasierako bilera

Lehen bilera honetan egiten da ebaluazio taldeko kideen aurkezpena, eta protokoloa eta egin beharreko zereginak erreparasatzen dira. Gainera, kronograma onartzen da, zeregin bakoitzaren datak finkatuta.

Idazkari teknikoak finkatzailearen esku uzten du ebaluazio taldearen koordinazioa, bai eta bilerak egiteko eta zereginak amaitzeko daten erabakia ere. Zeregin horietarako, finkatzaileak barne ebaluazioaren kronograma bat ezartzen du, eta ebaluazio taldeari helarazten dio.

5.4. Dokumentazioa aldez aurretik berrikustea

Ebaluazioaren oinarriak dira ikastegiak emandako dokumentazioaren analisia (KBBS, berrikuspenak eta txostenak, eranskinak eta erregistroak, adierazleak, aldaketan txostena eta ESG autoebaluazioa) eta haren kontrastea erreferentzia ereduarekin, **KBBSren implementazio maila** baloratuta. Helburua da ebaluatzea prozeduren dokumentu euskarria eta haien implementazio maila, ez haien alderdi formala. Beraz, **analisi sakon** bat egin behar da, ez formala, eta baloratu egin behar da ea bat datorren ikastegiaren sistema ereduarekin eta egiten dutela esaten duten horrekin.

Ebaluazio taldeak eskuratu behar du ebaluaziorako behar den dokumentazioa, **ikastegia bisitatu baino 6 aste lehenago**.

Ebaluazio taldeko kide bakoitzak dokumentazioaren **banakako analisi eta balorazioa** egiten du, indarguneak eta hobetzeko arloak detektatzeko irizpide bakoitzean, eta emaitza jasotzen da eranskin batean: [III. Eranskina A. Banakako ondorioak](#). Dokumentu hori helarazten zaio ebaluazio taldeko finkatzaileari, bateratzeko bilera egin aurretik, **taldeko bilera egin baino 7 egun lehenago**.

Benetakotzat hartu behar da ikastegiak emandako dokumentazioan jasotako guztia. Ebaluatzaileak ez dira auditoreak; aitzitik, jakin nahi dute zer-nolakoak diren ebaluatutako ikastegiaren kudeaketa praktikak, ikastegiari etengabe hobetzen lagunduko dion txosten bat egiteko.

Ebaluatzaileek ez dute berentzat gorde behar ebaluatutako ikastegiaren dokumentazioa, eta erabateko konfidentziasunez jokatu behar dute ikastegiaren dokumentazioan jasotako informazio guztiarekin, bai ebaluazioan eskuratutako informazioa, bai ebaluazio prozesuan izandako eztabaidetan eta ondorioetan jasotakoa. Horregatik, ebaluatzaile guztiek onartu behar dute konfidentziasun politika, ebaluazio prozesuaren lehen urrats gisa.

Garrantzitsua da ikustea ea KBBSk definitutako **Interes Taldeek** benetan parte hartzen duten eta zer mailatan.

Era berean, garrantzitsua da ere prozeduren kudeaketa baloratzea kontuan harturik **etengabeko hobekuntzako PDCA zikloa**; hau da, prozeduren planifikazioa, ezarpena, berrikuspena eta hobekuntza baloratuta.

Ebaluatu beharreko irizpideen analisia egitean, ebaluatzaile bakoitzak kontuan izan behar du ereduaren irizpideen edukia ([I. eranskina. ESG irizpideak](#)), eta **eskala** honen arabera baloratu behar du:

| | |
|----------------|---|
| Egokia | Irizpidearen zentzuari loturiko ekintzak <u>modu ordenatuan eta sistematikoan</u> egin izanaren ebidentziak daude, eta gainera, ekintzak modu eraginkorren eta neurgarrian garatu dira, KBBSren dokumentazioan zehatz-mehatz definitutako arduren arabera. <u>Jardunbide egokien adibideak daude.</u> |
| Nahikoa | Irizpideari loturiko ekintzak egin izanaren ebidentziak daude, eta baieztatu daiteke oinarriko alderdietan behintzat <u>modu egoki eta ordenatuan</u> garatu direla, bigarren mailako alderdi batzuk jaso ez badira ere. Hobetzeko arloren bat identifikatu behar da. Jardunbide egokiren bat ere identifika daiteke. |
| Eskasa | Dokumentazioan eta KBBSren erabileran, elementuak planteaturiko gaiari loturiko edukien <u>unean uneko ebidentziak</u> daude, baina ez daude ongi zehaztuta edo ez da egiten modu sistematikoan. Horrez gain, <u>nahitaez hobetu beharreko alderdiak detektatu dira.</u> |

5.5. Bilera, gaia bateratzeko eta bisita prestatzeko.

Dokumentazioa banaka aztertu ondoren eta **bateratzeko bilera egin baino 3 egun lehenago**, idazkari teknikoak ebaluatzaileei igorriko die ikastegiak eginiko ESG autoebaluazioa ([ESG autoebaluazioa](#)), haien analisiarekin kontrastatu dezaten.

Ebaluazio taldeak kontuan izan behar ditu **taldearen barruko rolak**, bai eta ebaluazio prozesuan erabili beharreko dinamika ere. Rolei dagokienez, KEIZk hautatzen du talde barruan **sendotze** lana egingo duen pertsona. Pertsona hori arduratzen da jasotzeaz ebaluatzaile guztien [III. eranskina A. Banakako ondorioak](#), **bateratzeko bilera baino 7 egun lehenago**, bai eta adostutako ondorioen dokumentu bakar bat egiteaz ere (III. eranskina B. Ebaluazio taldearen ondorioak). Gainera, Amaierako Txostena idazten du.

Garrantzitsua da kontuan hartzea elkarrizketa denbora mugatua dela, eta funtsezkoa da ondo zehaztea ebaluazio taldeko kideek bisitan aztertuko dituzten gaiak. Hortaz, bateratzeko bileran

aztertu behar dira garrantzitsuentzat hartzen diren gaiak, amaierarako utzita, denborarik geldituz gero, horren garrantzitsuak ez direnak.

Taldeak lehenetsuna eman behar die zalantza handienei (adibidez: sistemaren koherentzia, prozeduren berrikuspena, emaitzen arabera erabakien koherentzia —adierazleen analisiaren eta hobetzeko ekintzen arteko erlazioa—, hobetzeko ekintzen jarraipena, etab.).

Bisitak 5 ordu iraungo du gehien jota, eta goizez egingo da (presentziala). Ikastegiak ebaluazioa egiteko leku apropos bat prestatu behar du. Jarraibideen azterketarako gutxi gorabeherako ordutegi banaketa bat proposatzen da. Edonola ere, ebaluazio taldeak agenda bidaliko dio ikastegiari bisita egin baino 2 aste lehenago, idazkari teknikoaren bidez (**Error! Reference source not found.**). Era berean, bisitaren aurretik, ebaluazio taldeak ikastegiari adieraziko dio bere ustez zer interes taldek egon behar duten bisitan. Horien artean egongo dira Kalitateko dekanordea/zuzendariordea eta kalitateaz arduratzen den ikastegiko teknikaria edo TEKAZEL langilea. Gainera, gomendatzen da bisitan egotea ere ikastegiko zuzendaritza taldeko 2/3 kide eta Kalitate Batzordeko 2/3 kide.

5.6. Bisita

Adostutako egunean eta orduan, ebaluazio taldea ikastegiko arduradunekin bilduko da, dokumentazioaren analisisan sortutako zalantzak argitzeko.

Ebaluazio taldeak jarrera irekiz kudeatuko ditu denborak, ebaluatutako pertsonen zalantza guztiak argitzeko aukera izan dezaten. Bilatu behar dira aurretik identifikatutako indarguneak eta hobetzeko arloak baieztatuko dituzten ebidentzia objektiboak.

Bisitan zehar, ebaluazio taldeak galderak egingo ditu eta ikastegiak azalduko ditu irizpide bakoitzari loturiko bere kudeaketa praktikak. Ebaluazio taldeak gomendioak emango ditu, ikuspegi eraikitzaile batetik, adosten ari diren hobetzeko arloei ekiteko moduari buruzkoak, bai eta indargune gehiago lortzeko moduari buruzkoak ere.

Bisitan izandako elkarrizketaren emaitza gisa, barne ebaluazioaren amaierako txostena egingo da, eta dokumentu horretan jasoko dira zehaztutako indarguneak eta hobetzeko arloak.

5.7. Barne Ebaluazioaren Amaierako Txostena eta hura idazteko irizpideak

Bisita ondorengo bilera batean, ebaluazio taldea bilduko da barne ebaluazioaren Amaierako Txostena prestatzeko (ikus V. eranskina. Barne Ebaluazioaren Amaierako Txostena). Saio horren aurretik, ebaluatzaile bakoitza arduratuko da bisitaren zalantzak hobekuntza arlo bihurtzeaz, finkatzaileak amaierako txostenaren proposamena landu dezan. Txostena ebaluatutako ikastegian entregatzeko epea **3 astekoa** izango da, bisita egunetik kontatzen hasita. Txostena itxi aurretik, finkatzaileak hura helaraziko dio idazkari teknikoari, BARNE aplikazioaren bidez, beharrezkoak iruditzen zaizkion gaiak argitzeko edo zehazteko.

Amaierako Txostena idaztean erabiliko da hizkuntza argi, zehatz eta objektiboa. Gomendatzen da modu positiboan idaztea, ahal dela “ez” hitza erabili gabe. Era berean, hobe da hirugarren pertsonan idaztea, forma pasiboak erabilia: “ikusten da”, “aztertu da» eta “egin zen” erako aditz formak, “uste dugu”, “pentsatzen dugu”, “nahiko genuke” forma pertsonalen ordez.

Garrantzitsua da kontuan hartzea ezin izango dela Amaierako Txostenean hobetzeko arlotzat hartu bisitan formulatu ez zen zalantzarik.

Amaierako Txostenak izan behar dituen atalei eta hura egiteko aintzat hartu beharreko irizpideei dagokienez, honako hauek nabarmendu behar dira:

a) KBBSak bere osotasunean duen ezarpen mailari buruzko balorazio orokorra, irizpideen banakako balorazioan oinarrituta.

b) Irizpide bakoitzari dagokionez, banakako balorazioa, proposatutako eskalaren arabera (ikus *5.4 Dokumentazioaren aurretiko berrikuspena*). Ebaluazio taldearen balorazioa **Eskas** izan denean, hobetzeko arlo bat edo gehiago proposatuko ditu, kontuan izan gabe indarguneak detektatu diren ala ez. Balorazioa **Nahikoa** izan denean, hobetzeko arloak detekta daitezke, bai eta indarguneak ere. Balorazioa **Egokia** izan denean, indargune bat edo gehiago zehaztu behar dira, eta hobetzeko arloen bat edo beste ere aipa daiteke.

Ezin da indargune edo hobetzeko arlo bat errepikatu irizpide bat baino gehiagotan. Beraz, ebaluazio taldearen zeregina da indargune edo hobetzeko arlo bakoitza kokatzea egokien iritzitako irizpidean.

Irizpide bakoitzean, 2/5 indargune eta 2/5 hobetzeko arlo zehaztu behar dira. Azken horiei dagokienez, **hobetzeko tartea duten arloak detektatu behar ditu** ebaluazio taldeak, ez gomendioen zerrenda bat osatu. Are gehiago, zer hobetzeko arlok duten lehentasuna ezarri behar du, proposaturiko eskalaren arabera (ikus *5.4 Dokumentazioaren alde aurreko berrikuspena*).

c) **Hobekuntzarako ideiak eta tresnak** zehaztea. Barne ebaluazioaren bidez, ikastegiari lagundu nahi zaio bere kudeaketa praktikak hobetzen, ikastegitik kanpoko baina UPV/EHU barruko ikuspegi baten bidez. Horrenbestez, egoki iritziz gero, ebaluazio taldeak ideiak edo tresnak proposa ditzake, zailtasunak izan ditzaketan kudeaketa jarduerak hobetze aldera. Hala eta guztiz ere, ikastegiak ez ditu ekarpen horiek nahitaez bete beharko.

Indarguneak, hobetzeko arloak eta jardunbide egokiak idaztean, elementu bakoitzaren enuntziatuak ezaugarri hauek izan behar ditu:

- Deskribapena: hizkuntza argia, ordenatua eta objektiboa. Ez erabili hainbat interpretazio izan ditzakeen termino nahasgarririk. Ez eman iritzirik.
- Magnitudea: aipatu maiztasuna (kasu gehienetan, unean-unean eta ez modu sistematikoan, ez dago ebidentziarik...).
- Erreferentzia zehatza deskribatzen den horri: indarguneen, hobetzeko arloen eta jardunbide egokien irismena zehaztasunez adieraztea.

Elementu bakoitzaren izaera argitze aldera, hona hemen zenbait definizio:

Indargunea: erreferentea modu egokian bete eta hura gainditzen duen alderdia. Zehatz adierazi behar da zergatik hartzen den halakotzat.

Jardunbide egokia: berritasunagatik edo aplikagarritasunagatik beste ikastegi batzuetara eraman daitekeen alderdi esanguratsu bat da. Ez dira irizpide bat bete izanaren edo haren balorazio mailaren justifikazioak. Garrantzitsua da argudiatzea zergatik nabarmentzen den indargunea, hori justifikatuko duen ebidentziaren bat azalduta (adierazlea, prozesua, prozedura...).

Hobetzeko arloa: behar bezala ezarri ez den alderdi bat da. Ondorioz, irizpidearen balorazioa nahikoa edo eskasa da. Deskribatzean, argudiatu behar da zergatik den hobetzeko arlo bat, hobetu beharrekoa zehazki nabarmenduta. Justifikatuko duen ebidentzia jaso behar da.

6. Barne Ebaluazioan inplikaturako pertsonen pertzepzioa

Behin barne ebaluazioa amaituta, KEIZk informazioa bilduko du ebaluatutako ikastegiko pertsonen eta ebaluazio taldeko kideek ebaluazioaren inguruan izandako pertzepzioei buruz.

Horretarako, inplikaturako pertsona guztiek galdetegi bat beteko dute, ebaluazioari berari eta haien ustez izan dezakeen erabilgarritasunari buruzkoa.

Bestetik, KEIZk uste du garrantzitsua dela ebaluazio taldeetako kideen ebaluazio gurutzatua egitea, horrelako ebaluazio jardueretan parte hartzen duten pertsonen trebetasunak hobetzeko. Informazio horrek balio dezake indartu eta egokitzeko zerbitzutik ebaluatzaileei eta ikastegiei ematen diegun prestakuntza. Horrenbestez, ebaluazio taldeko kide bakoitzari eskatzen zaio labur baloratzeko barne ebaluazio taldeko gainerako kideek agerian utzitako ezagutzak, jarrerak eta gaitasunak.

KEIZk, datu pertsonalak babesteko araudiak betez (3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa) eta informazioaren konfidentzialtasuna bermatuz, bildu eta ordenatu egiten ditu talde bakoitzeko kideek eginiko balorazioak. Ondoren, dagokion informazioa igortzen dio pertsona bakoitzari.

Gero, dokumentazioaren eta antolakuntza nahiz prozesuaren inguruko feedback saio bat egiten da ebaluazio taldearen eta KEIZren artean, prozesua hobetzeari begira.

KEIZk informazio hori guztia aztertzen du, barne ebaluazioaren prozesua eta programaren dokumentazioa hobetzeko.

ERANSKINAK

- I. ERANSKINA. ESG irizpideak
- II. ERANSKINA. ESG autoebaluzioa
- III ERANSKINA A. Banakako ondorioak
- III ERANSKINA B. Ebaluzio taldearen ondorioak
- IV. ERANSKINA. Bisitako agenda proposamena
- V. ERANSKINA. Barne ebaluzioaren amaierako txostena

I. eranskina. ESG irizpideak

UPV/EHUn barne ebaluazioa egiteko, gogoeta egiten da ESG irizpideei buruz, erakunde barnean kalitatea ziurtatzeko irizpideak, multzokatuak UNIBASQek 2012ko azaroaren 11n onartutako “Unibertsitate Ikastegien Akreditazio Institutuzionala berritzeko estandarren eta irizpideen Gida”-ren arabera. UNIBASQen gidaren xedea da estandar eta irizpide batzuk finkatzea Euskal Unibertsitate Sistemako ikastegien Akreditazio Institutuzionala berritzeko.

1. IRIZPIDEA: ESTRATEGIA ETA KALITATE-POLITIKA DEFINITZEA

Estandarra: *Ikastegiak helburu estrategiko argiak ezartzen ditu, aldian behin berrikusten ditu, eta helburu horiekin bat datozen jarduerak planifikatzen ditu. Hori guztia interes taldeak inplikatzeko dituen kalitate-kultura garatzera bideratuta dago. Jarduera horiek bat etorriko dira, halaber, unibertsitatearen helburu estrategikoekin eta haren kalitate-politikarekin.*

2. IRIZPIDEA: IKASTEGIAREN PROIEKTU AKADEMIKOAREN DISEINUAREN KUDEAKETA

Estandarra: *Prestakuntza programen kalitatearen bermea: Ikastegiak sistematika propioa du bere prestakuntza programak modu integratuan diseinatu, onartu eta aldizka egiaztatzen, eta interes taldeen parte hartzea bermatzen du. Horri esker, Ikastegiaren Proiektu Akademikoa hobetu eta berri dezake, gizartearen erronkei erantzuteko.*

3. IRIZPIDEA: IKASTEGIAREN PROIEKTU AKADEMIKOA HEDATZEA ETA EZARTZEA, IKASLEA ARDATZ IZANIK

Estandarra: *Ikastegiak sistematika propioa eta jarraibide batzuk ditu definituta, bere Proiektu Akademikoan sartzen diren prestakuntza programetarako eta ikaslea ardatz duen ikaskuntza sustatzen dutenak. Jarraibide horiek sarrera profilen aniztasunari erantzun behar diote, eta irakaskuntza modalitate eta metodologiak, tutoretza planak, ebaluazio sistemak eta beste baliabide batzuk erabiltzen lagundu behar diote ikasleari, titulu bakoitzean espero denaren arabera ikaskuntza emaitzak lortu ditzan.*

4. IRIZPIDEA: UNIBERTSITATE IKASTEGIKO LANGILEEN BERMEA ETA HOBEKUNTZA

Estandarra: *Ikastegiak mekanismoak garatzen ditu bere langileen sarbidea, kudeaketa eta prestakuntza, bai eta haien jardueraren aldizkako ebaluazio sistematikoa ere, behar bezalako bermekin egiten direla ziurtatzeko, eta, aldi berean, haien eginkizunak betetzeko aukera emanaz, beti ere haien askatasuna eta osotasuna errespetatuz.*

5. IRIZPIDEA: BALIABIDE MATERIALAK ETA ZERBITZUAK BERMATZEA ETA HOBETZEA

Estandarra: *Ikastegiak bere Proiektu Akademikoa egoki garatzeko baliabide materialak eta zerbitzuak diseinatu, kudeatu eta hobetzeko mekanismoak eskuratu ditu.*

6. IRIZPIDEA: EMAITZEN ANALISIA

Estandarra: *Ikastegiak sistematika propio bat definitu du bere Proiektu Akademikoaren emaitzen datuak etengabe bildu, aztertu eta erabiltzeko. Ikastegiak integratuta du sistematika hori bere Proiektu Akademikoaren emaitzak ebaluatu eta hobetzeko —besteak beste, ikaskuntzaren emaitzak, laneratzea eta interes taldeen gogobetetzea—, eta gero erabakiak hartzeko eta Proiektu horren kalitatea hobetzeko.*

7. IRIZPIDEA: IKASTEGIAREN JARDUEREN ETA PROIEKTU AKADEMIKOAREN JARRAIPENA

Estandarra: *Ikastegiak barneratutako sistematika propioa eta jarraipen jarraibideak ditu, erakundearen maila guztietan etengabe hobetzeko.*

8. IRIZPIDEA: IKASTEGIAREN JARDUEREI ETA PROIEKTU AKADEMIKOARI BURUZKO INFORMAZIOA ARGITARATZEA

Estandarra: *Ikastegiak bere jarduerari eta Proiektu Akademikoari buruzko informazio eguneratua aldian-aldian argitaratzeko sistematika propioa eta jarraibideak ditu, erabakiak hartzeko prozesuak, kontuak ematea eta erakundearen maila guztietan etengabeko hobekuntza bermatzen dituztenak.*

II. eranskina. ESG autoebaluazioa

Barne gogoeta, ikastegiak ESG irizpideetan oinarrituta egindako kudeaketari buruz. Alde batetik, azterketa orokorrean, ikastegiaren kudeaketa bere testuinguruan kokatu behar da, barne harturik kanpoko azken ziurtagiria lortu zenetik KBBSan eginiko aldaketa garrantzitsuenak.

Bestetik, irizpide bakoitzean aipatu behar dira 2/5 indargune eta 2/5 hobetzeko arlo.

Dokumentazioa
ESG Autoebaluazioa
Bisita-agenda

PDFa sortu
Onartu

Ikastegiko kudeaketa testuinguruan jartzea, azalduta noiz lortu zen azkenekoz kanpo ziurtagiria eta zein diren azken ziurtapen horretatik KBBSan egin diren aldaketa handiak (mugarriak). Gaineratu ikastegiak garatuta/parte hartuta egin diren funtsezko ekintza guztiak, kudeaketari edo ikastegiaren beste edozein berezitasuni buruzkoak eta bertako KBBSari eragiten diotenak, erlazionatuta ikastegiko tituluekin (adibidez, Erasmus Mundus titulua, Dual aipamena, nazioarteko zigituak (EURACE...), etab.), edo KBBSaren eraginkortasuna hobetzearekin (adibidez, plan estrategikoa, komunikazio plana, sarrera/egresatze profilen azterketak, ITen gogobetetze azterketak, Euskaliten kontrastea, MGA, ISO, etab.).

ANILISI OROKORRA

Gorde

Q 1. DIMENT SIOA: KALITATEAREN ESTRATEGIA ETA POLITIKA
 1. IRIZPIDEA: KALITATEAREN ESTRATEGIA ETA POLITIKAREN DEFINIZIOA

Q 2. DIMENT SIOA: IKASTEGIAREN PROIEKTU AKADEMIKOA
 2. IRIZPIDEA: IKASTEGIAREN PROIEKTU AKADEMIKOAREN DISEINUAREN KUDEAKETA

Q 2. DIMENT SIOA: IKASTEGIAREN PROIEKTU AKADEMIKOA
 3. IRIZPIDEA: IKASTEGIAREN PROIEKTU AKADEMIKOA IKASLEARI BEGIRA HEDATZEA ETA EZARTZEA

Q 3. DIMENT SIOA: PERTSONAK
 4. IRIZPIDEA: UNIBERTSITATE IKASTEGIKO LANGILEEN BERMEA ETA HOBEKUNTZA

Q 4. DIMENT SIOA: BALIABIDE MATERIALAK ETA ZERBITZUAK
 5. IRIZPIDEA: BALIABIDE MATERIAL ETA ZERBITZUAK BERMATU ETA HOBETZEA

Q 5. DIMENT SIOA: EMAITZAK ETA HOBEKUNTZARAKO JARRAIPENA
 6. IRIZPIDEA: EMAITZEN ANALISIA

Q 5. DIMENT SIOA: EMAITZAK ETA HOBEKUNTZARAKO JARRAIPENA
 7. IRIZPIDEA: IKASTEGIAREN JARDUEREN ETA PROIEKTU AKADEMIKOAREN JARRAIPENA

Q 6. DIMENT SIOA: INFORMAZIO PUBLIKOA
 8. IRIZPIDEA: IKASTEGIAREN JARDUEREI ETA PROIEKTU AKADEMIKOARI BURUZKO INFORMAZIOA ARGITARATZEA

III. eranskina A. Banakako ondorioak

Lan-kronograma
III. eranskina A. Banakako ondorioak
III. eranskina B. Ebaluazio taldearen ondorioak
Bisita-agenda
V. eranskina. Barne ebaluazioaren amaierako txostena

Ikusi PDFa Dimentsioak
Ikusi PDFa Prozedurak
Txosten pertsonala itxi

1. Irizpidea
2. Irizpidea
3. Irizpidea
4. Irizpidea
5. Irizpidea
6. Irizpidea
7. Irizpidea
8. Irizpidea

1. DIMENTSIONA: KALITATEAREN ESTRATEGIA ETA POLITIKA
1. IRIZPIDEA: KALITATEAREN ESTRATEGIA ETA POLITIKAREN DEFINIZIOA

Estandarra:
 Ikastegiak helburu estrategiko argiak ezartzen ditu, aldiari behin berrikusten ditu, eta helburu horiekin bat datozen jarduerak planifikatzen ditu. Hori guztia interes taldeak inplikatzeko dituen kalitatezko kultura garatzera bideratuta dago. Jarduera horiek bat etorriko dira, halaber, unibertsitatearen helburu estrategikoekin eta haren kalitate politikarekin.

Kontuan izan beharreko alderdiak:

- Ikastegian definitutako kalitate-politika eta helburuak eta hausnarketa estrategikoa berrikustea eta ezartzea.
- Kalitate-politika eta helburuen eta hausnarketa estrategikoaren arduradunak.
- Interes-taldeak kalitate-politika eta helburuen garapenean eta hausnarketa estrategikoan integratzea.
- Helburu estrategikoak ezartzea, arriskuak eta aukerak kontuan hartuta, eta dagozkion jarduerak hedatzea.
- Helburuen lorpen-maila.
- Kalitate-politika eta helburuen eta gaur egungo hausnarketa estrategikoaren berrikuspena eta eguneratzea jakinaraztea.

| | | | | | | |
|--|----------------------|--------------|-------------------------|---------|----------|-----------|
| | Indarguneak | Nori galdetu | Bildutako dokumentazioa | Oharrak | Prozesua | Prozedura |
| | Bisitarako zalantzak | Nori galdetu | Bildutako dokumentazioa | Oharrak | Prozesua | Prozedura |

III. eranskina B. Ebaluazio taldearen ondorioak

Lan-kronograma
III. eranskina A. Banakako ondorioak
III. eranskina B. Ebaluazio taldearen ondorioak
Bisita-agenda
V. eranskina. Barne ebaluazioaren amaierako txostena

Ikusi PDFa Dimentsioak
Ikusi PDFa Prozedurak

1. Irizpidea
2. Irizpidea
3. Irizpidea
4. Irizpidea
5. Irizpidea
6. Irizpidea
7. Irizpidea
8. Irizpidea

Indarguneak
Bisitarako zalantzak

Ebaluatzaile gehigarrientzako edizioa gaitzea
 Onartu

III. eranskina A. Banakako ondorioak

2. DIMENTSIONA: IKASTEGIAREN PROIEKTU AKADEMIKOA
2. IRIZPIDEA: IKASTEGIAREN PROIEKTU AKADEMIKOAREN DISEINUAREN KUDEAKETA

Estandarra:
Prestakuntza programen kalitatearen bermea: Ikastegiak sistematika propioa du bere prestakuntza programak modu integratuan diseinatu, onartu eta aldizka egiaztatzeko, eta interes taldeen parte hartzea bermatzen du. Horri esker, Ikastegiaren Proiektu Akademikoa hobetu eta berritu dezake, gizartearen erronkei erantzuteko.

Kontuan izan beharreko alderdiak:
- IKKSren prozedurek aukera ematen dute IKKSaren babespean kudeatzen diren titulazioei eusteko, bereziki eskaintzaren diseinuari, plangintzari, irakaskuntza-giden arabera emateari, tituluaren aldizkako berrikuspenari eta berrikuspen horren ondoriozko hobekuntzak ezartzeko mekanismoei eta iraungitzeari (hala badagokio) dagokienez.
- Informazioa biltzeko eta aztertzeko sistemak, prestakuntza-eskaintza mantentzeari eta haren garrantziari begira.
- Nola ematen zaizkien kontuak interes-taldeei ikastegian emandako irakaskuntzen diseinuari, antolaketari, garapenari, berrikuspenari eta hobekuntzari buruz.

| Indarguneak | Nori galdetu | Bildutako dokumentazioa | Oharrak | Ebaluatzailea | Prozesua | Prozedura |
|-------------|--------------|-------------------------|---------|---------------|----------|-----------|
| | | | | | | |

III. eranskina B. Ebaluazio taldearen ondorioak

2. DIMENTSIONA: IKASTEGIAREN PROIEKTU AKADEMIKOA
2. IRIZPIDEA: IKASTEGIAREN PROIEKTU AKADEMIKOAREN DISEINUAREN KUDEAKETA

Estandarra:
Prestakuntza programen kalitatearen bermea: Ikastegiak sistematika propioa du bere prestakuntza programak modu integratuan diseinatu, onartu eta aldizka egiaztatzeko, eta interes taldeen parte hartzea bermatzen du. Horri esker, Ikastegiaren Proiektu Akademikoa hobetu eta berritu dezake, gizartearen erronkei erantzuteko.

Kontuan izan beharreko alderdiak:
- IKKSren prozedurek aukera ematen dute IKKSaren babespean kudeatzen diren titulazioei eusteko, bereziki eskaintzaren diseinuari, plangintzari, irakaskuntza-giden arabera emateari, tituluaren aldizkako berrikuspenari eta berrikuspen horren ondoriozko hobekuntzak ezartzeko mekanismoei eta iraungitzeari (hala badagokio) dagokienez.
- Informazioa biltzeko eta aztertzeko sistemak, prestakuntza-eskaintza mantentzeari eta haren garrantziari begira.
- Nola ematen zaizkien kontuak interes-taldeei ikastegian emandako irakaskuntzen diseinuari, antolaketari, garapenari, berrikuspenari eta hobekuntzari buruz.

| + | Indarguneak | Nori galdetu | Bildutako dokumentazioa | Oharrak | Ebaluatzailea | Prozesua | Prozedura |
|---|-------------|--------------|-------------------------|---------|---------------|----------|-----------|
| | | | | | | | |

IV. eranskina. Bisitako agenda proposamena

Bisitako agenda proposamena

(Ebaluazio Taldeak bete beharrekoa)

Data:

Ikastegia:

| | |
|-------------|--|
| 08:50-09:00 | <i>Ebaluazio Taldea iristea</i> |
| 09:00-09:30 | Aurkezpenak eta ebaluazioaren helburuaren azalpena. Ikastegiaren eta KBBSren aurkezpena. Dokumentu sistemaren eta UNIKUDEren erabileraren aurkezpen laburra. |
| 09:30-10:15 | Plangintza prozesua. |
| 10:15-11:15 | Goi Hezkuntzako prozesua. |
| 11:15-11:45 | <i>Atsedena-kafea</i> |
| 11:45-12:30 | Kudeaketa prozesuak (Giza Baliabideak, baliabide materialak, kudeaketa akademikoa). |
| 12:30-13:15 | Komunikazio prozesua. |
| 13:15-14:00 | Ebaluazio, Berrikuspen eta Hobekuntza prozesua. |
| 14:00-14:05 | <i>Agurra</i> |

V. eranskina. Barne ebaluazioaren amaierako txostena

Txosten honen helburua da laburbiltzea Barne Ebaluazioaren emaitza, ikastegiaren 2-5 indargune eta 2-5 hobetzeko arlo jasota ebaluatutako 8 irizpideetako bakoitzean. Gainera, ikastegiak landu beharko lituzkeen lehentasuneko hobetzeko arloak planteatzen dira.

The screenshot shows a web interface with a navigation bar at the top containing tabs: 'Lan-kronograma', 'III. eranskina A. Banakako ondorioak', 'III. eranskina B. Ebaluazio taldearen ondorioak', 'Bisita-agenda', and 'V. eranskina. Barne ebaluazioaren amaierako txostena'. Below the navigation bar, there is a checkbox labeled 'Jardunbide egokiak', a green button 'Sortu Informe PDFa', and the text 'Egoera Irekita'. A secondary navigation bar contains tabs: 'Balorazio orokorra', 'Dimentsioak', 'Lehentasuneko hobekuntza arloak', and 'Hobekuntzarako ideiak eta tresnak'. The main content area features a large empty text box with the label 'Balorazio orokorra' centered above it.

ERREFERENTZIAK

- Unibertsitateen Idazkaritza Nagusiaren 2022ko martxoaren 3ko erabakia, zeinaren bidez ematen diren unibertsitate publiko eta pribatuetoako ikastegiak akreditatzeko prozedurari buruzko jarraibideak, eta argitaratzen diren bai unibertsitate ikastegietako kalitatea bermatzeko barne sistemak ziurtatzeko protokoloa bai unibertsitate ikastegien akreditazio instituzionala berritzeko ebaluazio prozeduraren protokoloa, bi-biak Unibertsitate Politikako Konferentzia Nagusiak onartuak. [https://www.boe.es/eli/es/res/2022/03/03/\(2\)](https://www.boe.es/eli/es/res/2022/03/03/(2))
- Europako Unibertsitate Eremuen kalitatea ziurtatzeko irizpideak eta ildoak (Standards and Guidelines for Quality Assurance in the European Higher Education Area) https://www.enqa.eu/wp-content/uploads/filebase/esg/ESG%20in%20Spanish_by%20ANECA.pdf
- EUSKALITen kanpo kontrastea eskatzeko jarraibideak (2021). <https://www.euskalit.net/archivos/202102/instrucciones-contraste-externo-2021.pdf?0>
- EUSKALITen (2021) online kanpo ebaluaziorako zerbitzua eskatzeko oinarriak. <https://www.euskalit.net/archivos/202102/bases-evaluacion-externa-2021-1.pdf?0>
- KBBS AQUren inplementazioa ziurtatzeko txostenak idazteko irizpideak (2020ko maiatza) https://www.aqu.cat/doc/doc_13292397_1.pdf
- Unibertsitate ikastegien akreditazio instituzionala berritzeko estandarren eta irizpideen gida, 2002ko azaroaren 11koa (UNIBASQ) <https://www.unibasq.eus/wp-content/uploads/2023/03/Guia-AI-nov-2022.pdf>
- BARNE informatika tresna <https://app.ehu.eus/BarnekoEbaluazioa/principal>
-